

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
ARLOA: BERDINTASUNAREN ALDEKO GOBERNANTZA HOBETZEA		
NO1.2. Udaleko teknikarientzat Berdintasunaz eta Politika publikoetan genero ikuspegia txertatzeari buruzko trebakuntza diseinatzea eta garatzea.	-Berdintasuna	-Hizkuntzaren erabilera ez-sexista: Udaleko langileak (8 ordu, 17 emakume eta 9 gizon). Kontseiluko kideak (2 ordu, 10 emakume eta 6 gizon) - Berdintasunerako legeak:Gizarte Zerbitzuetako administrazio-langile guztiak, 2 ordu
NO1.3. Hirigintzako, Ingurugiroko eta Getxolaneko teknikarientzat berdintasunaz eta bere arlo zehatzetan genero ikuspegia txertatzeko trebakuntza diseinatze eta garatzea.	-Berdintasuna	Egin gabe
NO2.1. Mahai Teknikoaren bitartez (Udal lantaldea) Udaleko langileen arteko elkarlana eta koordinazioa bermatzea.	-Berdintasuna	Berdintasun arloko koordinazio-bilerak egin dira hauekin: Kultur Etxea, Gazteria, Euskara, Lankidetzeta, Getxo Kirolak, Hirigintza, Immigrazioa, Getxolan, Ondarea, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa eta Barne erregimena. Diru-laguntzetako berdintasun-irizpideei buruzko bilera egin da udaleko lantaldean.
NO3.1. Udalean egindako estatistika eta proiektu guztietan genero ikuspegia txertatuko dela bermatzea.	-Berdintasuna	Arlo bakoitzeko borondatearen arabera da. Ez dago daturik zein sailetan kontuan hartzen den eta zeinetan ez esateko, baina gehienek ez dute egiten. GKn adierazleen kudeaketako aplikazio bat egin da, eta teinsport aplikazioaren eta sexuen arteko aldearen datuak aztertzen ditu.
NO3.2. Datuak segregaturik jasotzea eta Getxolaneko Behatokiaren txosten guztietan genero ikuspegia txertatzea, horrela lan munduan emakume eta gizonen errealitatea berezitu hobeto ezagutzeko.	-Berdintasuna	Posible denean eta datuak daudenean, informazioa sexuaren arabera banatzen du behatokiko txostenetan (txosten sozioekonomikoa...) zein Adierazle Sozioekonomikoen Informazio Sisteman.
NO4.1. Udalak antolatutako dirulaguntza deialdietan berdintasun irizpideak txertatzea.	-Berdintasuna	Gehitzen dira. Gehitutako irizpideen informazioa sistematizatu da horiek bateratzeko proposamen bat egin ahal izateko.
NO4.2. Berdintasuna bultzatzea helburu daukaten ekintzei dirulaguntzak ematea.	-Berdintasuna	15.615,50 € eman dira guztira (Roda eta Eskuz esku) , horrez gain, 7.528, Gizatiarrekin egindako hitzarmenekoak
NO4.3. Udalak garatutako eta bultzatutako ekintza guztietan berdintasuna bermatzeko ordenantza bat sortzea.	-Berdintasuna	Egin gabe
NO4.4. Getxolaneko zerbitzu eta programen genero inpaktua aztertu eta talde trebakuntzaren bidez hobetzea beharreko eremuak identifikatzea.	Getxolan -Berdintasuna	Egin gabe. Getxolan berregituratzeko eta eskumenak aldatzeko prozesuan murgilduta dago. Hori dela eta, ez da beharrezkotzat jo.
NO4.5. Genero ikuspegia kontuan daukan Getxoko Kulturaren inguruko "argazki" bat egitea.	-Berdintasuna Kultura	2009, 2010 eta 2011 urteetako kultura-programazioaren analisi kuantitatiboa egin da, sexuen arabera banatuta.

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
NO4.6. Gida bat sortzea eta zabaltzea, kultura sustapena eta jaien zein ekintza kulturalen programazioarekin zerikusia daukaten ekintzak planifikatzeko eta garatzeko orduan, berdintasuna bultzatzeko irizpideak eta praktika onak jasotzeko.	Berdintasuna Kultura	Getxoko Kultur Etxeko jardueretan genero-berdintasuna bultzatzera bideratutako irizpide eta proposamenekin dokumentu bat egin da. Proposamen horiek Kultur Etxera bidali dira, eta ondoren, kulturako plan estrategikoa egiten ari den enpresari helarazi zaizkio, kontuan har ditzan.
NO5.1. Udaleko Web-gunearen, Emekiren eta Intranetaren bitartez, Berdintasun Arloaren ekintzen eta informazioaren zabalpena bermatzea.	Berdintasuna	Eginda.
NO5.2. Berdintasun plana Udalerrian zabaltzea.	Berdintasuna	Eginda.
NO6.2. Berdintasun Kontseilua dinamizatzea.	Berdintasuna	Eginda. 2012an, Kontseiluak 6 bilera egin ditu.
NO7.1. Enplegu Publikoko deialdietako gaitegietan berdintasunaren inguruko gaiak txertatzen jarraitzea.	Langileria	2010eko EEPTik eratorritako hautaketa-prozesuen deialdietan oinarri zehatzetan gehitu dira
NO7.2. Lan-poltsetan puntuazio berdina dagoenean, emakumeak azpiordezkatuta dauden postuetan hauek lehenesteko irizpidea mantentzea.	Langileria	EEPko oinarri orokorretan zein lan-poltsetarako prozesuak arautzen dituzten oinarrietan lehenetasuna ematen zaio.
NO7.3. Hautapen mahaien osaera parekidea izango dela bermatzea.	Langileria	2010eko EEPko oinarri orokorrak.
NO8.1. Erosketa publiko arduratsuari eta berdintasunari lagunduko dioten klausula sozialak txertatzea.	Langileria	<ul style="list-style-type: none"> - Batzorde bat sortu da gizarte-klausulak gehitzea bultzatzeko, eta horretan Berdintasuneko teknikariak parte hartzen du. - Berdintasuneko teknikariak urte osoan gizarte-klausulen taldean parte hartu du, Emakunde bultzatutako Erakunde arteko Batzorde Teknikoaren barruan. - Emeki aldizkariaren kontratazioak berdintasun-klausulak ditu (2012an luzapena baino ez da egin) - Zenbait zerbitzu-kontratu egin zaizkie gizarteratze-enpresei.
ARLOA: HEZKUNTZA		
HzA1.1 Hezkuntza zentroetan ematen den espazioaren antolaketaren inguruko azterketa egitea eta bere ondorioak zabaltzea.	Berdintasuna	Egin gabe

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
HzA3.1. Helburu eta ekintzak zehaztu eta garatzea hezkuntza eta aisiaren eskaintzaren bidez berdintasuna susta dadin	Gazte Arloa	<ul style="list-style-type: none"> - Gaztelekun neskentzat interesgarriagoak ziren jarduerak egin dira, zerbitzuan erabiltzaile horien kopurua handitzeko. Eta lortu egin da. Gaur egun, mutilen eta nesken kopurua orekatuta dago. - Gaztelekuko hezitzaileek indarkeria prebenitzeko jarduerak dinamizatu dituzte azaroaren 25aren inguruan - Beldur Barik bideosormen tailerra - Sexu-informaziorako bulegotik, Gaztelekuko hezitzaileekin lankidetzan, galdera-erantzunen "SexLeku" abian jarri da, sexualitatearekin zerikusia duten gaien inguruko interesa sortzeko (postontziaren bidez). Postontzia irekitzeko eta zalantzak argitzeko saioan 7 nerabek eta 3 hezitzailek parte hartu dute.
HzA3.2. Aisialdi eskaintzak egiten dituzten elkarten ekintzetan berdintasun helburuak txertatu daitezkeen bultzatzea.	Gazte Arloa	Diru-laguntzen deialdietako balorazio-irizpide batzuek helburu hori dute.
HzA3.3. Gurasoen eskolako ekintzetan eta " Seme-Alabak" aldizkarian hezkidetzak eta berdintasunaren inguruko gaiak barneratzea.	Zerbitzu Sozialak	Ez da egon hezkidetzak edo berdintasunari buruzko hitzaldirik ez artikulu berezirik, baina edukietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten da eta datuak sexuaren arabera banatzen dira. Gurasoen eskolan, sexualitateari buruzko saioak gehitu dira.
HzB1.1. Sentsibilizazio ekintzak egitea aiten esku-hartze prozesua indartzeko eta, tradiziozko rolak gaindituz, etxeko eta zaintza lanen banaketa parekoa, norberaren autonomia, etab, bultzatzeko.	Berdintasuna	Egin gabe
HzB2.1. Hurrengo urteetan haur eskoletan egongo den plaza behararen inguruko prospekzio bat egitea.	Hezkuntza	Ez da prospekziarik egin, baina bai estimazioa.
HzB2.2. Udalaren kompetentzien barnean, beharrezkoa den neurrian, haur eskolako plaza kopurua gehitzea bultzatzea.	Hezkuntza	Printzipioz, Romon haurreskola bat irekitzea aurreikusita dago, baina ez da behin betikoa, plazak handitzea ez baitago Udalaren esku, Haurreskola Partzuergoaren esku baino. Udaleko Hezkuntza Sailaren ustez, ez dago premiarik plazak handitzeko, Egunsentia haurreskolan eskaintza ez baita bete.
HzB2.3. Udaleku, ludoteka... bitartez bateragarritasuna erraztuko duten aisialdi ekintzak eskaintzea.	Gazte Arloa	<ul style="list-style-type: none"> Kirol, hiri, musika-udalekuak eskaini dira eta Bapiruke udalekuen programa diruz lagundu da. -Hiri-udalekua: 216 neska-mutil -Ludoteka: 2011-12an 95 parte-hartzaile egin dira (52 neska eta 43 mutil)
HzI1.1. . Indarkeria sexista prebenitzeko programak eskaintzen jarraitzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Eraldatzen</i> DBHko 3. mailan, 6 orduko esku-hartzea gelan. 2011-12 ikasturtean 5 ikastetxetako 280 gaztek parte hartu dute, 146 neska eta 134 mutilek. - <i>Entre nosotras</i> tailerra, Getxon Bizi immigranteentzako harrera programaren barruan.
ARLOA: GIZARTERATZEA		

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
JdA1.1 Dibulgazio argibideak egin eta zabaltzea Getxoko Gizarte Zerbitzuen eskaintzari buruz.	Zerbitzu Sozialak	Webean argitaratu den Gizarte Zerbitzuetako zerbitzuen zorroaz gain, Oinarriko Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko katalogoa argitaratu eta zabaldu da.
JdA2.1. Harrera tailerrak eta lan aurreko moduluak zabaldu eta mantentzea	Immigrazio Arloa	Lanaren aurreko moduluak desagertu dira. Hilero aholkularitza juridikoaren saioak eskaintzen dira. - <i>Encuentro y formación para mujeres migradas</i> tailerrak: 3 orduko 10 saio, 18 emakume Immigranteentzako harrera tailerrak Getxon Bizi programaren barruan (55 pertsona, %83,6 emakumeak). - <i>Nutrición y Cocina</i> (24 h) - <i>Cuidate: Autocuidados para las personas que cuidan</i> (24 h) - <i>Comunicación eficaz y resolución de conflictos</i> (12 h) - <i>Entre nosotras</i> (12 h), emakumeei zuzenduta. - <i>Internet y las nuevas formas de comunicación con mi gente</i> (24 h)
JdA2.2. Elkarte indartze prozesuen alde egitea: bultzatzea ,bai etorkinen elkarte espezifikokoak bai emakumezko etorkinenak nola emakume hauen sarrera beste elkarteetan ere.	Berdintasunaimmigrazio Arloa	- Ellacuria Fundazioarekin akordioa berritzea mugimendu asoziatibo indartzeko eta immigranteen elkarten plataforma babestea (emakumeak Getxoko elkarte-ehunaren zati garrantzitsua dira).
JdA2.3. Laguntza psiko-soziala eskaintzea etorkina den biztanleriari bere familia berrelkartze prozesuetan.	Berdintasunaimmigrazio Arloa	- Zuzeneko arreta eskaintzen da (larunbatetan 4 h). 2012an 34 familia artatu dira, 9 kasu aurreko urtekoak eta 25 berriak.
JdA2.4. Emakume etorkinen parte hartzea bultzatzea Jabekuntza Eskolan eta elkartruckerako guneak sortzea	Berdintasun Arloa Immigrazio Arloa	- Zabalkunde orokorraz gain, immigranteen elkarten plataforman eta herritar horiek erabilitako espazioetan egiten da zabalkunde (telefonotegietan, dendetan eta ostalaritza guneetan). - <i>Diálogos interculturales entre mujeres</i> ekimenaren 4. urtea, hilero topaketa bat eginda. Ohiko zabalkunde espazioez gain, emakume migratuentzat orri berezia banatu da parkeetan eta metroaren irteeran, Töumai aldizkarian informazioa sartu da eta Getxo entre culturas facebookaren bitartez egin da.
JdA3.1. Dirulaguntzak ematea horrela eskatzen duten alargun eta pentsionisten elkartei	Zerbitzu Sozialak	Ez da bidezkoa, ez baita eskaerarik egon.
JdA3.2. Jarraitzea hitzaldi informatiboak antolatzen eta informazioa zabaltzen alargunei eragiten dieten gai desberdinei buruz.	Berdintasun Arloa	Alarguntasun pentsioetan izandako azken arau-aldaketei buruzko hitzaldia egin da (31 emakume eta 2 gizon).
JdA4.1. Harremanak indartzea ezintasunak dituzten pertsonekin lan egiten duten elkarteekin.	Zerbitzu Sozialak	Aniztasun funtzionala duten pertsonen elkarteek Sarekiden parte hartzen dute (lehen Fegevol). Getxoko boluntarioen elkarten erakundea da, eta eginkizun nagusia udalerrian boluntarioen lana sustatzea eta indartzea da. 17 entitate biltzen ditu.
JdA4.2. Mendetasuna duten pertsonen zaintzaren diagnostikoa martxan jartzea..	Zerbitzu Sozialak	Eginda. Informazio gehiago JdB1.2. jardueran.

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
JdB1.1. Zaintzarekin zerikusia duten zerbitzuen eskaintza hobetzea (Eguneko zentroak, atsedeen programak, etxe laguntza, etab.) beti ere udal eskumen barruan.	Zerbitzu Sozialak	2012an 48 atsedean hartzeko 48 ordu doan eskaini dira 2. eta 3. graduako mendekoak zaintzen dituzten familiakoentzat. Horrez gain, etxean laguntzeko zerbitzua eskaintzen jarraitu da Oinarriko Gizrte Zerbitzuen bidez.
JdB1.2. Laguntza eskaintzea zaintzaileei genero perspektiba barnertzen duten ikastaro, tailer, eta auto-laguntza taldeen bidez.	Zerbitzu Sozialak	2012an trebakuntza hau eskaini da: <ul style="list-style-type: none"> - 14 orduko laguntza psikologikoaren 2 tailer, guztira 24 parte-hartzaile (3 gizon, 21 emakume) - Erlaxazioaren 2 tailer: 14 ordu, 42 parte-hartzaile (5 gizon, 37 emakume) - Mobilizazioen eta transferentzien 2 tailer: 12 ordu, 27 parte-hartzaile (9 gizon, 18 emakume) - <i>El reto de cuidar personas dependientes</i> ikastaroa, 17 parte-hartzaile (gizon 1, 16 emakume)
JdB1.3. Emakumezko zaintzaileak sensibilizatzea auto-zaintzaz eta euren aisialdi propioaz gozatzeak duen garrantziaz.	Zerbitzu Sozialak	<ul style="list-style-type: none"> - Zainduz programari buruzko diptiko informatiboak argitaratu dira, herritarrak sensibilizatzeko bide moduan. - <i>Arrugas</i> filma proiektatu da, alzheimer gaixotasunari buruz eta adineko mendekoak instituzionalizatzeari buruz sensibilizatzeko. - <i>Cuidar de mi, cuidar de ti</i> tailerra amona zaintzaileentzat, Jabekuntza Eskolaren barruan.
JdA4.1. Getxoko guraso bakarreko familien egoerari buruzko diagnostikoa egitea eta antzemandako beharrei aurre egiteko jokabide ildo zehaztea.	Zerbitzu Sozialak	Egin gabe
JdI1.2. 24 orduko arreta zerbitzua eskaintzea; beti ere EAEko Zerbitzuen Katalogoak horrela jasotzen badu.	Zerbitzu Sozialak	Zerbitzuen Katalogoa oraindik ez da onetsi. 24 orduko arreta zerbitzua ere oraindik ez da abian jarri.
Jdi2.1. Protokoloaren Jarraipen Batzordean dauden erakunde artean parte-hartze aktibo bat bultzatzea.	Berdintasuna	Batzordeak aurreikusitako bi bilerak egin ditu eta erakunde gehienek parte hartu dute (hezkuntza eta lege arloko ordezkariak izan ezik).
Jdi2.2. Protokoloan inplikaturako udaleko teknikarien trebakuntza bultzatzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Udaltzaingoan protokoloaren jarraipen batzordean parte hartzen duten 2 pertsonak <i>Jornadas contra la violencia de género y a favor de la Igualdad</i> jardunaldietara joan dira (25 h). Gizonezko beste 2 agentek <i>Violencia doméstica y de género</i> (5 h) prestakuntza egin dute. Udaltzaingoko 4 pertsonak <i>Uso no sexista del lenguaje</i> ikastaroa egin dute (8 h, 2 emakume, 2 gizon). <i>Los hombres y la violencia contra las mujeres. Reflexiones y prácticas desde los grupos de hombres</i> mahai-ingurura joatea (udaltzain 1) - PIFeren aurkezpena (Etxe esparruan emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako familia esku-hartzeko programa). Gizarte-langileak, SISE, Berdintasuna, Immigrazioa (2 h). - <i>II Jornadas de orientación y terapia familiar en contextos clínicos y comunitarios</i> jardunaldietan parte hartzea. Jardunaldiotan, hitzaldi hauek egon dira " Violencia filio-parental", " Violencia en el ámbito de la pareja", " Terapia familiar breve en violencia contra la mujer" (gizarte-langile 1)

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
ARLOA: HIRIGINTZA, INGURUGIROA ETA GARRAIO PUBLIKOA		
HIGA1.1. Emakume taldeen ordezkarien parte-hartzea bermatzea Hirigintza Planteamenduaren Aholkularitza Kontseiluan	Hirigintza	Aholkularitza Kontseilua 2012an ez da bildu. Gizatiar elkarteak Kontseiluan parte hartu du, eta 2012an emakumeen elkarteei parte hartzeko gonbita egin zaie berriro.
HIGA1.2. Emakume taldeen ordezkarien parte hartzea bermatzea Ingurugiro Foroan	Ingurugiroa.	Eginda. 2012an Eskuz eskuk parte hartu du.
HIGA2.1. Genero ikuspegiari buruzko prestakuntza ekintzak gauzatzea Ingurugiro Foro eta Hirigintza Plangintzarako Aholkularitza Kontseiluan parte hartzen duten pertsonen zuzenduta.	Hirigintza Ingurugiroa.	Egin gabe. Aurreikuspenen arabera, genero-ikuspegia duen prestakuntza hau lantaldeen prestakuntzaren barruan sartuko da. Prestakuntza hori 2013ra atzeratu da.
HIGB1.2. Bizikleta garraiobide moduan bultzatzen jarraitzea eta bidegorri sarea eta bizikleta alokairu zerbitzua zabaltzea.	Hirigintza Ingurugiroa.	Eginda
HIGB1.3. Oinarri integral batetatik, Irisgarritasuna hobetzeko ekintzak garatzen jarraitzea.	Hirigintza	Jarduerak etxebizitzetan
HIGB1.4. Genero ikuspegia kontutan hartuta, espazio publikoen erabileraren inguruko diagnostiko bat egitea eta detektatutako beharrei erantzutea.	Hirigintza	Egin gabe
HIGB1.5. Igogailuen asteburuetako ordutegiak moldaketa aztertzea.	Hirigintza	2001n ordutegiak ordubetez edo ordu eta erdiz luzatu ziren, urteko hilabeteen eta asteke egunen arabera.
HIGI1.1. "Getxoko Emakumeentzako Hiri Debekatuaren Mapa" emandako aholkuen jarraipena egitea eta betetze maila baloratzea.	Berdintasuna	Hirigintzarekin bilera bat egin da <i>Mapa de la Ciudad Prohibida para las Mujeres en el Municipio de Getxo</i> dokumentuan proposatutako jardunen jarraipena egiteko.
ARLOA: ENPLEGUA		
EnA1.1. Genero haustura digitala gaintzea bilatzen duten ikastaro eta ekintzak antolatzea	-Getxolan	Ez da ezer zehatzik antolatu.
EnA1.2. Enpresak sortu nahi dituzten emakumeei aholkularitza eskaintzen jarraitzea	-Getxolan	Ekintza hau eginda dago, eta ekintzaitzari buruzko datuak sexuaren arabera banatuta daude.
EnA1.3. Getxolaneko zerbitzu eta programa guztietan lehentasuna ematea: 44 urte baino gehiagoko emakumeei, familia ardura duten emakume bakarrei eta txertaketa soziorabalerako zailtasunak dituzten emakumeen kolektibo	-Getxolan	Bereizkeria positiboa ezarrita dago, beharrezkoa den guztietan. Hala ere, 2012an irizpide hau aplikatzea ez zen beharrezkoa izan profila betetzen zuten pertsonen artean, eskaria ez baita izan egon dauden plazak baino handiagoa.

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
EnA2.1. Etxelangintza sektorean ari diren pertsonen beraien lan eskubideez informatzea	Berdintasuna Getxolan Immigrazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Gaiari eskainitako saioa <i>Talleres de Encuentro y formación para mujeres migradas</i> topaketetan. - Arauketa berriari buruzko informazio-kanpaina, langileentzako hitzaldiekin. - Arau-esparruaren laburpen-dokumentua eta ohiko galderen dokumentua informazioa eskatu duten pertsonen eta hitzaldietara joan direnei ematea. - Atzerritarrei buruzko informazioa gehitzea hitzaldietan emandako dokumentuetan eta informazioa sektorean lan egiten duten erakundeei bidaltzea. - Deribazioak beharrezkoa denean - Lan-eskaintzen kudeaketa Lanbideren bitartez
EnA2.2. Getxoko enplegatzaileei jakinaraztea etxe enpleguaren lan harreman markoa .	Berdintasuna Getxolan	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio-kanpaina eta hitzaldiak enplegu-emaileentzat etxeko langileak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeko sortutako aldaketei buruz. - Etxeko langileak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartzeko alderdi aipagarrienei eta horien lan-loturari buruzko laburpen dokumentua egin eta zabaltzea.
EnA3.1. Segidako traktuko zerbitzuetan emakumeek daukaten presentziaren inguruko azterketa bat egitea eta sexu arrazoiengatik alborapenik dagoen identifikatzea.	Berdintasuna	Egin gabe
EnA3.2. Udaletxeko lanpostuen balorazioan genero ikuspegia txertatzea.	Langileria	Ez da bidezkoa, lanpostuen balorazioa ez baita egin.
EnA4.1. Getxoko enpresei informatzea Berdintasun edo kontziliazio Plana edukitzearen abantaila buruz eta horretarako dauden laguntzez.	Berdintasuna Getxolan	Egin gabe
EnB1.1. Kontziliazioa lagundu eta enplegurako prestakuntza eskaintzan emakumeen parte hartzea ahalbidetzen dituzten hobekuntzak sartzeko.	Getxolan	Egin gabe
EnB2.1. Bateragarritasunaren inguruan dauden beharrak zehazteko eta hartu beharreko neurriak definitzeko lanketa bat egitea.	Langileria	Egin gabe
EnB.2.2. Baimenak, lizentziak eta eszedentziak erregulatzen dituzten arauak ezagutaraztea eta gizonak hauek erabiltzera bultzatzea.	Langileria	Gizonezkoek erabiltzea sustatzen duen foilero zehatzik egin ez den arren, Langileen Sailak informazioa eman du udalerrian lizentziak arautzen dituen dekretuari buruz.
ARLOA: KULTURA, KOMUNIKAZIOA, KIROLA ETA GARAPENA		
KA1.1. Emakumeek Getxoko historiari egin dioten ekarpena ikertzea eta ondorioak zabaltzea.	Berdintasuna	Emakumeek Getxoko historiari egindako ekarpenari buruzko II. beka deitu da, 8.000 €-ko zuzkidurarekin.
KA1.2. Getxoko Emakume sortzaileak modu aktibo batean sustatzea une honetan dauden programen bidez.	Kultur Etxea	Emakume sortzaileak hauen bidez sustatzen dira: diru-laguntzak, Getxoarte, erakusketa-aretoak, Mujeres en la música zikloa, Mujeres en escena eta beste programa batzuk.

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
<p>KA1.3. Emakume etorkinen eta Getxoko elkarten artean komunikazio eta elkarlan zubiak eraikitzea (Euskara Showa, arrazakeriaren aurkako nazioarteko egunaren antolaketa, munduko terrazak...eta era horretako ekimenen bidez) .</p>	Immigrazio Arloa	<p>-Identibuz Getxo, ikus-entzunezko sormenerako esperientzia parte-hartzailea. Horretan, udalerriko pertsonak eta kolektiboek parte hartu dute, hala nola emakumeen elkarteek.</p> <p>- Zubiak arrazakeriaren aurkako film laburren lehiaketa</p> <p>- Munduko terrazak</p> <p>- Jarduerak hauen inguruan: martxoaren 21, Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna; ekainaren 20a, Pertsona Errefuxiatuen Eguna, eta abenduaren 18a, Pertsona Migratuen Nazioarteko Eguna.</p> <p>- Magrebari buruzko jardunaldiak <i>Liburutegiak Topaleku</i> ekimenaren barruan.</p> <p>-<i>Diálogos Interculturales entre mujeres</i>, Jabekuntza Eskolaren barruan</p> <p>- Getxon bizi harrera programako ikasleek (%83,6 emakumeak) Harresiak Apurtuz kultura arteko topaketan parte hartu dute</p> <p>- <i>Encuentro y formación para mujeres migradas</i> tailerreko parte-hartzaileen elkartruke espazioa emakume donostiarren elkarteekin eta bisita Donostiako Emakumeen Etxera.</p>
<p>KA2.1. Getxoko Emakume kirolariak ikusgarri egitea neska gazteentzako eredu moduan.</p>	Getxo Kirolak	<p>Abian dago. BAT Euskal Kirol Federazioarekin elkarriketak egiten ar idira elitetako kirolariak Getxoko ikastetxeetara joan daitezela kirolaren onurei buruzko hitzaldiak emateko.</p>
<p>KA3.2. Seme-alaben kirol esperientzietan inplikatzek daukan garrantziaz amak eta aitak sentibilizatzeko eta kontzientziazteko.</p>	Getxo Kirolak	<p>Egin gabe</p>
<p>KA3.3. Getxoko Udalerriari dagoen kirol eskaintza zabaltzea..</p>	Getxo Kirolak	<p>Multikirolakeko eragile eta ezagunen artean asteburuetan egiten diren kirol-jarduerak guztiak zabaltzen ari dira.</p>
<p>KA4.1 Jabekuntza eskolarako urteroko egitaraua osatzea emakume gazteen interesak kontutan hartuta.</p>	Berdintasuna	<p>Autodefentsari, sexualitateari eta bizikleten mekanikari buruzko tailerrak emakume gazteenak erakartzeko.</p>
<p>KA4.2. Emakume gazteei zuzendutako zabalpen espezifiko bat egitea..</p>	Berdintasuna	<p>Zabalkundea Gazte Bulegoaren bidez (posta elektronikoak, sms-ak bidaltzea, eta informazioak).</p>
<p>KA5.1. Jardunaldien, hitzaldien, nazioarteko sareen, publikazioen...bidez, Getxoko eta Hegoaldeko herrietako emakumeen arteko elkarlan eta truke ekintzak bultzatzea.</p>	Lankidetzak	<p>- <i>Mujeres, protagonistas de la soberanía alimentaria. Experiencias cubanas y vascas</i> erakusketa, Euskadi-Cubarekin lankidetzan.</p> <p>- <i>Contando el encuentro</i> saio irekia: <i>Las hijas de Oshun</i> dokumentala aurkeztu - emakume afouruguaiarren oroimena berreskuratzeari buruz- eta foruma zuzendariarekin</p> <p>- <i>Contando el encuentro</i> saio irekia: Boliviako nekazarien mugimenduko emakume zuzendari batek parte hartuko du. Mundubat-en lankidetzarekin.</p>

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
<p>KA5.2. Getxoko udalak diruz lagundutako proiektuak jasotzen dituzten herri batzuetako emakumeen egoera eta posizioa ikusgarri egiteko, Getxotik Mundura Programaren barruan antolatzen diren ekintza eta guneen sustatze eta promozio politikaren jarraitze</p>	Lankidetzatza	<p>Getxotik Mundura:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gizatiar emakumeen elkartearen parte-hartzea. - Genero-desberdintasunei buruzko antzezpena Munduko Zirkuaen barruan. - Berdintasunerako jolasen gunea. - <i>Wilaya</i> lanaren proiektzioa. Sahararren kanpamenduetan dauden genero-desberdintasunak kontatzen dira. - <i>Mayan Renaissance</i> dokumentala, Rigoberta Menchú protagonista dela. <p>Beste jarduera batzuk:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ekofeminismoari buruzko hitzaldia Yayo Herreroekin, <i>Jornada sobre Sostenibilidad y equidad</i> jardunaldiaren barruan.
<p>KA6.3. Udalerriko elkarteak animatu konpromiso zehatzak hartzera eta berdintasunaren aldeko eragileak bihurtzera.</p>	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Bilerak emakumeen elkarrekin (Kontseiluan parte hartzen dutenak eta beste batzuk). - Bilerak jaien batzordeekin.
<p>KA7.1. Herriko hedabideekin topaketak edo tailerrak antolatu, irudia eta hizkuntzaren erabilera ez sexistaz hausnarketa egiteko eta genero ikuspegia integratzeko.</p>	Berdintasuna Komunikazioa	Egin gabe
<p>KA7.2. Hizkuntza eta irudiaren erabilera ez sexista egiteko eta genero ikuspegia txertatzeko irizpideen dekalogo bat osatzea .</p>	Berdintasuna Komunikazioa	Ez da dekalogoia adostu, baina gaiari buruz jasotako prestakuntzaren ostean, orohar, Komunikaziotik irizpide berdinezaleak hartzen dira kontuan.
<p>KA8.1. Gizonak aukera berdintasunaren aldeko jarrera eta konpromisoetara erakartzea.</p>	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Repensando la masculinidad</i> tailerra, 12 ordu, 14 gizon - Tailerraren ostean, 2011ko tailerreko gizonak biltzen jarraitzeari mesede egin zaio (koordinazioa eta lokala uztea) - Berdintasunarekin lotutako informazioak egin diren 4 tailerretan parte hartu dutenei bidaltzea. - <i>Los hombres y la violencia contra las mujeres. Reflexiones y prácticas desde los grupos de hombres</i> mahai-ingurua, azaroaren 25eko kanpainaren barruan
<p>KA8.2. Emakume gazteak trebatzea eta baliabideak eskaintzea, berdintasun formaletik harantzago, existitzen diren diskriminazio egoeren inguruko kontzientzia hartzeko.</p>	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> -Eskaintza ingeresgarri baten bide zeta kuoten sistema erabiliz, Jabekuntza Eskolan emakume gazteen kopurua handitzea lortu da. 30 urtetik beherakoak emakumeen %13,2 dira (2011n, %9,5). -Lankidetzatza Gaztelekurekin eta Gazteria Zerbitzuarekin

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
KA8.4. Herritarrak sentsibilizatzeko ekintzak antolatzen jarraitzea: Martxoaren 8 eta Ekainaren 28 inguruan.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Ekainak 28, Gayen, lesbianen, bisexualen eta transexualen Eguna: <i>Las Luchas por los derechos de la diversidad sexual</i> mahai-ingurua, kolektibo horietako aktibistekin. - Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna - "Kristalezko sabaia" eta horren inplikazio ugari buruzko hitzaldia. - Mahai-ingurua: askotariko errealitateak dituzten emakumeen lekukotzak: gaztea, desgaitasuna duena, migratua, enpresaburua... - Erakusketa: "Dependencias mutuas: empleadas de hogar y crisis de los cuidados". - "Las mujeres en las artes escénicas" azterlanaren aurkezpen antzeztua - Antzerkia: "La 52".(Plataforma Tirante) - Emekiren zenbaki monografikoa: <i>Rompiendo el techo de cristal</i>
KB1.2. Kultur ekintzetara zuzendutako lekuetan eta kirol eraikinetan edoskitzeko gelak eta fardelak aldatzeko guneak prestatzea.	Kultur Etxea Getxo Kirolak	<ul style="list-style-type: none"> - Villamonte Kultur Etxean eta Fadura eta Gobela kiroldegietan pixoihalak aldatzeko lekua dago, emakumeen zein gizonen komunitan eta aldageletan. - Andra Marin ez dago. - Ez da edoskitze-gelarik egokitu
KI1.1. Jai batzordeak jaietan indarkeria sexista desagerrarazteko lanean inplikatzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Romo, Portu Zaharra eta Algortako batzordeei bilera baterako deia egin zaie gai horretan lankidetzaren proposatzeko. Gerora ez dute inolako eskaerarik formulatu. - Portu Zaharra eta Romoko batzordeek jardueraren protokoloa dute eraso sexistarik egonez gero. - Bilera Itzubaltzetako Emakumeen Asanbladarekin gai horren inguruan egite dituzten jardueren berri izateko eta lankidetzaren proposatzeko.
KI.1.2 Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari laguntzeko udalerrir mailako kanpainak eta ekintzak egitea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Puntu lila eta Beldur Barik zabaltea azaroaren 25eko kanpainan. - Jai berdinzaleen aldeko kanpaina. - Gizonei eta indarkeriari buruzko hitzaldia (42 em, 12 gi), eta sexu-erasoei buruzko hitzaldia (10 em, 3 gi). - Tailerrak ikastetxeetan. - Emeki aldizkariaren azaroko zenbakia sexu-erasoei buruz. - Gaiari eskainitako saioa <i>Talleres de Encuentro y formación para mujeres migradas</i> tailerretan - Ikastaroak Jabekuntza Eskolan (<i>Autodefensa, ¿Pasa la violencia debajo de tu puerta?</i>). - <i>Repensando la masculinidad</i> gaiari eskainitako saioa. - <i>Beldur Barik</i> bideo-sormeneko tailerra gazteentzat (4 neska, 2 mutill. 11 antzezpenean) - Indarkeria prebenitzeko jardueren dinamizazioa azaroaren 25aren inguruan Gaztelekun

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
KI.1.3. Emakumeen aurkako eraso sexistei gaitzespen instituzionala adieraztea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Azaroaren 25eko erakundeen adierazpena - Puntu lila udal eraikinetan eta Bizkaia Zubiko plazan - Gaiari lotutako prentsa-oharretan gaitzespena agertzea
ARLOA: OSASUNA		
OA1.1. Bizitza ohitura osasuntsuak bultzatzeko genero ikuspegia kontutan hartzen duten kanpainak antolatzea.	Berdintasuna Gizarte Zerbitzuak	<ul style="list-style-type: none"> - DBHko 394 ikaslek (Fadura, Aixerrota, Romo-Artaza institutuak, San Nikolas ikastola eta Azkorri ikastetxea) HIESaren prebentzioari eta hezkuntza afektibo-sexualari buruzko ikastaroetan parte hartu dute. - Droga-mendetasunen prebentzioan lan egiten da gazteekin ikastetxeetan, kaleko hazkuntza zerbitzuaren bidez.
OA1.2. Nahi ez diren haurdunaldiak saihesteko ekimenak garatzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Sexu-informazioarako bulegoak kontrazepzioari buruzko kontsultak artatu ditu. - Neska-mutilen talde bat hezitzailearekin sexu-informazioarako bulegora joan da - <i>Conociendo más a fondo la planificación familiar</i> tailerra gehitu da <i>Talleres de Encuentro y formación para mujeres migradas</i> tailerren barruan.
OA1.3. Emakumeen bizitza ziklo ezberdinen inguruko informazioa ematea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Jabekuntza Eskolako tailerra: <i>¿Qué sabe tu cuerpo que tú no sabes (aún)?</i>, 16 ordu. - Kontsultak Sexu-informazioarako bulegoan.
OA2.1. Sexu Informazio eta Aholkularitza bulegoa mantentzea eta indartzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - 71 kontsulta artatu dira: 46 zuzenean (23 emakume, 23 giz.), 16 telefono bidez (6 emakume eta 10 giz.) eta 9 posta elektronikoz (5 emakume eta 4 giz.). - Arreta zuzenean 21 kasu berri egon dira, eta aurreko urtetik 6 mantendu dira. - Talde artapena: <i>Las sexualidades de las mujeres</i> hitzaldia (25 emakume eta zenbait txaron-zerrendan), eta jarduerak Gaztelekun. - Sexualitateari eta antisorkuntzari buruzko saioa <i>Talleres de Encuentro y formación para mujeres migradas</i> tailerretan. - Lehen arretan sexualitatea jorrazteko gida Osakidetzako langileentzat.
OA2.2. Sexu Informazio eta Aholkularitza bulegoak ematen dituen zerbitzuen inguruan informatzea.	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Foiletoak banatzea - Informazioa eta/edo publizitatea webean, Getxoberrin eta Emekin - Gutunak ikastetxeetara bidaltzea
OA3.1. Sexu Informazio eta Aholkularitza Bulegoaren inguruan ekimenak antolatzeko Osakidetzarekin elkarlanean aritzea (Deribazioak, kasuen jarraipenak, tailerrak...).	Berdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera urtero egiten da, zerbitzuaren memoria bidaltzen da eta bi noranzkoetan deribazioak egiten dira. - Osakidetzak eskatuta, sexologoak lehen arretan sexualitatea jorrazteko jarraibideen gida egin du.
OA4.1. Osasunarekin zer ikusia daukaten elkarten inguruko katalogo bat osatzea eta hauek eskaintzen dituzten baliabideen inguruko informazioa zabaltzea.	Zerbitzu Sozialak	<ul style="list-style-type: none"> - Ez da dekalogo zehatzik egin. Baina osasunari lotutako elkarte guztien datuak webean daude, Gizarte Zerbitzuen atalean.
OB1.1. Egoitza eta Eguneko Zentroen eskaerari erantzutea.	Zerbitzu Sozialak Udal Egoitza	<ul style="list-style-type: none"> - Udal egoitzan 139 ohe daude, eta horietatik 90 Aldundiarekin hitzartuta daude. - Gainerakoek erabilera pribatua dute, Gizarte Zerbitzuek bideratutako pertsonentzat erreserbatuta daude eta Aldundiko antzinako deribazio-sistamarako erreserbatuta daude. - Eguneko zentroan 30 plaza daude eta Aldundiak kudeatzen du osorik.

EKINTZAK 2012	ARLOKO ARDURADUNA	
OB1.2. Mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen udalerrri barneko desplazamenduak erraztu.	Zerbitzu Sozialak	Foru-eskumena izan arren, Gurutze Gorriarekin hitzarmena dago mugikortasun murriztuko pertsonak aisiako eta astialdiko jardueretara eramateko. 2012an, 46.250 €-ren truke. 3.632 zerbitzu egin zaizkie garraio egokituko 26 erabiltzaileri.
OB2.1. Familiarren zaintza arduretan gizonen inplikazioa sustatzea.	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak	- <i>Repensando la masculinidad</i> tailerra. - Zainduz programako jarduera guztiak zaintzaileei bideratuta daude.
OB2.2 Emakumeei pertsona menpekoen zaintzan ardurak delegatzeko estrategiak eskaintzea.	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak	Tailerrak amona zaintzaileentzat Jabekuntza Eskolan, 16 ordu.
OB2.3. Gizon nagusientzat auto-zainketarako eta ingurua zaintzeko genero ikuspegia duten tailerrak eskaintzen jarraitzea.	Berdintasuna Zerbitzu Sozialak	Nagusien Etxeak aurten tailerra ez antolatzea baloratu du, urte hasieran gainerako tailerrekin batera eskaini baitzen eta inork ez baitzuen galdetu. 2013an berriro eskainiko da.
OI.1.1. Indarkeriaren biktima diren emakumeen arretarako protokoloan Osakidetzaren parte-hartze aktiboa bultzatzea.	Berdintasuna	Jarraipen Batzordearen 2 bileretan parte hartu du. Barruko prestakuntza egiten eta indarkeria-kasuak prebenitu eta antzemateko materialak zabaltzen jarraitzen du.

2012an egin beharreko jardueren kopurua	95*	%100
Eginda	66	75,53%
Egiten	10	10,99
Egin gabe	15	16,48

- Aurreikusitako jarduerak guztira 95 ziren arren, bidezkoak ez diren 4 jarduera alde batera utzi dira eta, beraz, ehunekoak 91 jardueraren gain kalkulatu dira.